



EBAZPENA, 2019ko apirilaren 12koa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, ordezkapenak egiteko 2018ko azaroaren 16ko deialdiaren bidez ireki diren ordezkogaien aparteko zerrendetan onartutakoen eta kanpoan utzitakoen behin-betiko zerrenda argitara ematen duen zuzendari beraren 2019ko martxoaren 5eko ebazpena aldatzen duena.

2018ko azaroaren 16ko aparteko deialdiaren bidez espezialitate desberdinetako zerrendak ireki ziren, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko aginduak 17. artikuluan ezarritako baldintzen arabera.

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2019ko urtarrilaren 29ko ebazpenaren bidez argitara eman ziren onartutakoen eta kanpoan utzitakoen behin-behineko zerrendak.

Aurkeztutako erreklamazioak ebatzi ondoren, Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2019ko martxoaren 5eko ebazpenaren bidez onartutakoen eta kanpoan utzitakoen behin-betiko zerrendak eman ziren argitara.

Akatsak ikusi dira aurkeztutako tituluen balidatze informatikoan eta horrek bi pertsona deialdi honetan ebatzitako ordezkogaien zerrendatik at behar ez bezala uztea ekarri du.

Horregatik,

EBAZTEN DUT

1.artikulua.- Ebazpen honen eranskinean adierazitakoaren arabera aldatzea 2018/11/16ko deialdiaren bidez ordezkapenak egiteko ireki diren aparteko zerrendetan onartutakoen eta kanpoan utzitakoen behin-betiko zerrenda.

2.artikulua.- Ebazpen hau www.irakasle.eus web orrian emango da argitara.

3.artikulua.- Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari gorako errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, aipatutako ebazpena argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

**JON AGIRRE HUERGA
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**

Vitoria-Gasteiz, 2019ko apirilaren 12a



ERANSKINA

- KATTALIN FAGOAGA TELLETXEA

Behin-betikoz onartutakoen artean agertu behar du 2018ko azaroaren 16ko deialdiaren bidez irekitako Kontsultorearen 16/0953 eta Pedagogia Terapeutikoaren 16/0958 espezialitateen zerrendetan, Gipuzkoako lurralde historikoan.

0953 Kontsultorea:

Gipuzkoako lurralde historikoa: María Ezquerro Aizpuruaren atze-atzean.

0958 Pedagogia Terapeutikoa:

Gipuzkoako lurralde historikoa: María Ezquerro Aizpuruaren atze-atzean.

- AITOR VIVAR OSABA

Behin-betikoz onartutakoen artean agertu behar du 2018ko azaroaren 16ko deialdiaren bidez irekitako Gorputz Hezkuntzaren 16/0956 espezialitatearen zerrendan, Arabako lurralde historikoan eta Laura Viteri Ibarren atze-atzean.